

Zoriontasun puska

Uste dut gu garela arazo bat izango du gure belaunaldiak
eta zaila izango zaigu eustea norabait lotzea

besteen bizkarrak helduleku zailak dira begietara begira uler diezaioten
nahi duenarentzat

uste dut agian ez garela errudun guztiz gu, baina gudan daude jatorri zehatzik gabeko
tristuraren hondarrak

errepide luze baten erdian egurrezko aulki bat zabaldu eta zain ikusten
dut gure burua
etrokizuna eta iragana zein norabidetan dauden ez dakigu eta zain

nora korrika egin baino nun gauden pentsatzea da irtenbide bat
agian bakarra

zeruaren dimentsioak gehiegi dira
eta lurrera begira lasaigo sentitzen garela ematen du

niri ahaztu egin zait
hamasei urte bete nituen eguna ahaztu egiten zaizkit
gauza asko

informazio gehiegi dugu egunero

eta ahaztu egiten zait
zaila delako gordetzea dena eta dena nahi izatea
eta nahi batzuk
eta denon beldurrak
hezur-haragizko interakzio mekanizatuak eta bakardearen gogoa
edo izua hori gara
maite duguna zaindu nahi dugula sentitzean
eta nahiko genukeen bezala egiten ez dugula ikustean dator arnas zatikatua

uste dut gu garela
buru-hezurrean tristura asko hondoratuko duen belaunaldia

denboraz ere ahaztu naiz nahastu egiten naiz trabatu hizketan eta haragi bizitan bakarrik
azal dezaket nahi dudana

uste dut ez dakidala askatasuna zer den erabatekoa ez bada galdu egiten naiz

egutegiak eta erlojuak kendu nituen
haize gris arin batek balio duelako
urteek eta zebakiek ez bezala arnasa hartu nahi dut
itota egon naizelako
eta errepide huts batean gaudela ahaztu egiten zait
arnastu dezakegula hemen ere baina lurrera begira



eta ez da nahikoa

ez dakizkigu gauza asko

eta ez dakiguna jakin behar dugu
eta pisu iraunkor bat da baina jakin nahi dugu dena
eta irudi asko ahaztu zaizkit eta eraiki ditut beste asko

eta bizirauteko aireratu egiten gara errealitatetik eta asmo berriak
ditugu etengabe
baina nekatu egiten gara

ahaztu egiten zaizkigu gauza asko oroitzapen batzuk
desagertu dira nahikoa dugu orain aulkian zain
gertatzen dena ulertzen

eta nik ere nahi dut uler diezadaten kezkatzen gaituena nahi bezain ondo
ulertzen ez dudan arren eta bizkarra gara
gu ere askorentzat

uste dut ez dela
gure belaunaldiaren errua baina errepide luzeetan aurkitu dugu gure burua eta nora lotu
ez dakigula aulkitik altxatzen gara gero berriro esertzeko
eta zain
uste dut gu garela arazo bat du
gure belaunaldiak baina ez da guk sortua

eta

ezin gaituzte ulertu errepide luzean gure burua nolabait irribarre lasaiz zoriontasun
puskaz aurkituko genuela esan zigutenek

aurkituko gara norabait lotu oraindik ez dakigu nola
eta zain gaude

Olerkia: Eider Perez Adeletx